

Aldundi-jauregian, Donostian, Diputaziñoan, Bildu dira: I. M.<sup>a</sup> Etxaide jauna, buru, Villasante, Lekuona, Gorostiaga, Mitxelena ta Oleaga euskaltzaiñak. Zugasti, Arruza, Echaniz, San Martin ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Semendiko, Abenduko ta Urtarrilleko batzar-agiriak irakurri dira eta irurak ontzat artu dira.

Garagarrilleko batzarrean ontzat artu zirean oiñarriak jarraiturik izentau zan batzar-buruzagi jagon-saillekoaz berba egin da. Etxaide jaunak diño izentau daiela buru bat.

Arruza, Gorostiaga ta Oleaga jaunak firmau daben idazki bat irakurri da. Bertan esaten da Euskaltzaindiaren etxean Euskaltzaindiaren Laguntzaileen batzar bat egin gura izan dala eta deiak egin zireala. Eta batzar-egunean Irigoyen jaunak I. M.<sup>a</sup> Etxaide Euskaltzaindiko buruzagiak egindako karta bat irakurri ebala eta bertan Irigoyen jaunari "observadore" legez joateko eskatzen eutsala. Eta ezabela ontzat artzen "observadore"-rik.

Etxaide jaunak diño astiroago irakurri bear dauela karteia erantzun egokia emoteko. Datorren batzarrerako itxi da arazo au.

Oleaga jaunak diño bera etzala egon batzar orretan, baiña baekiala batzarraren barri eta ontzat artu ebala.

Irigoyen jaunak diño Euskaltzaindiaren Laguntzaileen izenean Arruza jaunak firmauta dei bat artu ebala aipatutako batzarrera joateko. Eta bera ezala Euskaltzaindiaren laguntzailea, Euskaltzaindiko "urgazlea" baiño. Eta Garagarrillean Euskaltzaindiak orduko nasteak amaitzeko artu zituan oiñarriak ez tireala jarraitzen. Etxaide jaunak bialdu eutsan karteia alkarren arteko karta bat besterik etzala eta bertan ezteutsala eskatzen "observadore" legez joateko aipatu dan batzarrera.

Aita Migel Mari-k Markiña-ko karmeliten izenean karta bat idatzi dau. Diño euskal-eskola bat zabaldu dabela Markiña-n eta Euskaltzaindiari bere itzala eskatuten deutso. Erantzun bekio Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dauala eta prest dagoala aal dauen laguntasun guztia emoteko.

Mirentxu Moraiz-ek Tolosa-ko "Lizardi" taldearen izenean karta bat bialdu dau. Bertan eskatzen dau Euskaltzaindiak Lizardi zanaren gorazarrez poesia-sariketa bat egin ondoren, Tolosa-n, beste jai batzuen artean, sariak emoteko batzar bat egin daijala. Irigoyen-ek bera ta Labayen-en artean alkareri onez idatzi dautsiez an karta batzuk irakurri ditu. Euskaltzaindiak begi onez ikusten dau arazo au eta egin beitez bear direan aleginak aurrera aterateko.

Aita Villasante-k diño euskal-metodoa Bizkaiko euskeraz iminten dabillega egi-  
llea. Egiten dauenean Oleaga ta Villasante-k berak arakatu beie batzarrera ekarri bai-  
ño leen.

Gipuzkoako gobernadore jaunak amar milla peseta emon ditu iztegi-lanen ize-  
nean Mitxelena jauna be aipatuaz. Eskerrak emon bekioz.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.